

FUNTSEZKO ELKARTEAK



- **Enpresa desberdinak:** MediaMarkt, Plazaola, Urzai...
 - IRAUNek izango dituen gailuak lortu ahal izateko, ezinbestean beharko ditu enpresa desberdinak, hauei **erosteko** edo **tratu bat egiteko**.
- **Bezeroak.**
 - IRAUNek eskaintzen duen zerbitzuetako bat, **bigarren eskuko gailuak alokatzearena** da, beraz, bezeroekin harremanak eskainiko dituzten tresnak lortzeko bide bat izango da. Hauek, beraien **gailuak salduko** diote enpresari, eta IRAUNek beste **bezeroentzat eskuragarri jarriko** ditu.
- **Webgunea prestatzeko** teknikariak.
 - Hasiera batean, web orrialdea **diseinatzeko** teknikari bat beharko du IRAUNek, zerbitzua internet bidez ere erabilgarri egon dadin. Behin diseinatuta, **aldaketa** edo **berrikuntzaren** bat egiteko beharko da langile hori.
- **Produktua etxera heltzeko** beharrezko enpresa.
 - IRAUNen zerbitzua interneten egongo denez, **etxez-etxeko bidalketa** egingo duen enpresa bat beharko da (seur), eta hauek egunerokoan lan egin beharko dute, eskaera guztiak bezeroen eskuetara garaiz iristeko asmoz.
- **Gailuak mantentzeko** eta **konpontzeko** enpresa.
 - Azkenik, gailuek matxurak izan dezaketenez, IRAUNek kontratatutako enpresa bat arduratuko da horretaz. Izan ere, gailuek **egoera onean** eta **eguneratuta egon behar** dute bezeroen eskuetara iristen diren momentuan.



IRAUN